

# VÍRGALA MENOR / BIRGARA BARREN

— ARABA / ÁLAVA —

Gasteiztik 23 kilometrora dago Birgarabarren, Arabako Mendialdean, Birgaragoien baino apur bat hegorago. Arraia-Maeztu udalerriaren parte da, eta lau bizilagun besterik ez du.

Birgaragoienekin batera Donemiliaga Kukuilako monasterioari burdinazko bi hesi ordaintzen zioten, 1025. urteko agiri batean jasotzen denez. Orduko sasoian *Birgara de Iuso* izena zeukan. 1257. urterako, baina, Jerónimo Aznar gotzainaren ze rrrendan, *Virga Menor* izenpean dator.

Birgarabarren Gaonatarren jaurerriko parte izan zen, Azazeta, Birgaragoien, Maeztu eta Atauri hurbileko herriekin batera. Garrantzi históricoa izan zuen herriak, bertan egiten baitzituzten Arraiako eta Laminoriako Ermandadeen Batzarrak, foruei dagokienez, Aguraingo Kuadrillaren barruan baitzeuden. Gaur egun galdua dagoen San Adrian baselizaren ondoko gela batean egiten zituzten batzarrok.

Esta localidad se encuentra situada a 23 km de Vitoria, en la Montaña alavesa, un poco más al sur que su población hermana, Vírgala Mayor. Forma parte del ayuntamiento de Arraia-Maeztu, y cuenta solamente con cuatro habitantes.

Junto a Vírgala Mayor pagaba al monasterio de San Millán de la Cogolla dos rejas de hierro, tal y como se recoge en un documento de 1025. En esos momentos era conocido como *Birgara de Iuso*, mientras que en la lista del obispo Jerónimo Aznar, de 1257, aparece citada como *Virga Menor*.

Vírgala Menor formó parte del señorío de los Gaonas, al igual que las cercanas localidades de Azácerta, Vírgala Mayor, Maestu y Atauri. Tuvo también su importancia histórica, ya que era aquí donde se celebraban las juntas de la Hermandad de Arraya y Laminoria, entonces integrante de la Cuadrilla de Salvatierra a efectos forales. Esas reuniones tenían lugar en una sala adjunta a la desaparecida ermita de San Adrián.

*Herriaren ikuspegia orokorra / Vista general del pueblo*



## *Andre Maria Sortzez Garbia eliza Iglesia de la Concepción de Nuestra Señora*

**B**IRCARABARRENCO PARROKIA herriaren erdian dago, egitura erromanikoa gorde duen eraikin hondatu bat da. Hiru ataleko nabea du, kanoi-ganga zorrotz batek estalita, pilastra gaineko parpain-arkuek eusten diotelarik. Kapera nagusian aurreko horma laua dago, eta beranduagoko gurutze-ganga bat du, estalki gisa.

Buruaren kanpoko aldean antzinako ur biko estalkiari antzematen zaio, bai eta erlitzaren aztarnei ere. Ipar eta hegoko hormetan harburu-ilarak gorde dira; lauak dira de-nak, hegoaldeko bat izan ezik. Hegoko horrek gizonezko baten burua du apaingarri.

Testua eta argazkiak: REA


**L**A IGLESIA PARROQUIAL de Vírgala Menor se encuentra en el centro mismo del pueblo, y es un deteriorado edificio que conserva su estructura románica. Consta de una nave de tres tramos, cubierta con bóveda de cañón apuntado sobre arcos fajones que apoyan en pilas-tras. La capilla mayor presenta testero plano y se cubre con bóveda de crucería de cronología tardía.

En el exterior de la cabecera se aprecia la doble vertiente de la cubierta antigua, así como restos de su cornisa. En los muros norte y sur se han conservado también sendas hileras de canecillos, todos lisos, salvo uno del lado sur que está decorado con una cabeza masculina.

Texto y fotos: REA

*Ikuspegia orokorra / Vista general*





Oinplanoa / Planta

Hegoaldeko altxaera / Alzado sur





Harburua / Canecillo

Bibliografía / Bibliografía

LÓPEZ DE GUEREÑU, G., 1962, pp. 76-77; PORTILLA VITORIA, M. J. *et alii*, 1982, pp. 746-747, fig. 675; VEGAS ARAMBURU, J. I., 1985, pp. 125-128.